73. [Osasun-arloko profesionalentzako jarduera-gida](#) egin da, [genero-indarkeria](#) eta sexu-erasoak antzemateko. Gida horren helburua da osasun-arloko langileak inplikatzeko kasu horiek garai detektatzeko, eta, era berean, esku hartzeko irizpide profesionalak eta baliabideak eskaintzeko, arazo hori jasaten duten emakumeei arreta integratua eman ahal izateko eta, horrela, aurre egin ahal izateko. (2019/06/21)
74. [Erradioterapia onkologikorako hirurgarren azeleragailu bat](#) jarri da martxan, Amancio Ortega Fundazioarekin egindako akordioaren ondorioz, bai eta Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean diagnostikatzeko erresonantzia magnetiko berri bat ere. (2019/06/24)

Kultura eta Hizkuntza Politika (7)

75. [Burdin hezia](#) monumentu-multzoaren kategoriako kultura-ondasun gisa kalifikatzea onartzea. (2019/02/28)
76. Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Bulego Publikoak 1.930.000 euroko funtsa osatuko dute, urte honetan zehar [Iparraldean euskara](#) modu bateratuan sustatzeko. (2019/04/03)
77. [Donostiako Alde Zaharra eta kaia kultura-ondasun izendatzea, monumentu-multzo kategoriarekin.](#) (2019/04/16)
78. [Lehendakariak harrera egin dio Quebeceko ordezkari bati.](#) Ordezkaritza horrek Euskadi bisitatu du, Quebec-en eta Euskadiren arteko lotura kulturalak estutzeko, eta lehen urratsak eman ditu 2020an Quebecen euskal kultura-denboraldi bat antolatzeke. (2019/07/3)
79. Eusko Jaurlaritzak [19/22 Kultura Plana](#) aurkeztu du, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren 2022ra arteko lan-ildo nagusiak jasotzen dituena. (2019/07/30)
80. Eusko Jaurlaritzak herritar guztien eskura jarri du ‘[Itzultzaile Automatiko Neuronal](#)’, herritarren erabilerarako Jaurlaritzaren proiektu praktiko bat, Adimen artifizialek abiatuta sortua. (2019/10/16)

81. Eusko Jaurlaritzak lehen aldiz onartu du [euskara arlo sozioekonomikoan sustatzeko plan bat](#), eta 2023rako bete beharreko "helburu" kuantifikagarriak zehaztu ditu. (2019/12/26)

Segurtasuna (6)

82. Ertzaintzaren [parke mugikorra](#) berritzeko lehen fasea amaitu da. (2019/01/11)
83. Itsas Erriberako Kutsadurari aurre egiteko Euskadiko [Larrialdi Plan Berezia](#) (Itsasertza) onartu da. (2019/04/09)
84. [Proiektu pilotu bat](#) diseinatu da Bilboko ertzain-etxean atxilotutako pertsonen kudeaketa zentralizatua kudeatzeko. (2019/06/06)
85. [Txurdinagako Koordinazio Zentroko instalazioak egokitu eta modernizatu dira](#), eta bertatik datozen segurtasun-zerbitzuak berrantolatu dira, batez ere bide-segurtasunari eta larrialdiei eragiten dietenak, 800.000 euroko inbertsioarekin. Birmoldatutako gelak lehendakariak inauguratu ditu. (2019/06/26)
86. Ekainaren [27ko 7/2019 Legea](#) onartzen da, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen bosgarren aldaketari buruzkoa. (2019/07/09).
87. Aurkeztu da "[BAIETZ prozesua. Segurtasun publikoaren kudeaketa estrategikoa eta taktikoa. Delituaren analisia Ertzaintzan](#)". Helburutzat du lanaren esparrua eta ezagutza kriminalaren eraikuntzak bideratutako hurbilketa-estrategia polizialaren osagai nagusiak kontzeptualizatzea. Halaber, Ertzaintzan eredia koherentziaz ulertu eta ezarri ahal izatea, delituaren analisiaren zientzian eragile bakoitzak dituen gaitasunak hobetzea, eta segurtasun publikoko politikak formulatzeko eta segurtasun-arazoei aurre egiteko kudeaketa-esparru metodologiko bat ezartzeko tresna praktikoa gisa balio izatea, etorkizuneko begirada proaktiborantz aurrera egin ahal izateko, delituak prebenitu eta murrizteko. (2019/10/09)

Lana eta Justizia (3)

88. 2019an, hamabost (15) milioi euro bideratuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko [doako laguntza juridikora](#): hiru (3) milioi euro [Arabarako](#), zazpi (7) milioi euro [Bizkairako](#) eta bost (5) milioi euro [Gipuzkoarako](#). (2019/01/21)
89. [Justizia konponarazlearen Zerbitzua](#) sortu da, Europako Kontseiluaren gomendioarekin bat datorrena, eta operadore juridikoekin lankidetzan aritzea helburu duena, alderdien eskubide besterenezinen beharrezko bermatzaile baitira. (2019/06/05)
90. Abian jarri da "[zurekin](#)" [proiektu pilotua](#), [genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako jarduketa judizialean laguntza integrala emateko](#). Honako hauek dira helburuak: biktimarengan eszenaratze judizialak sortzen duen antsietatea geldiaraztea; biktimari gertakariari aurre egiteko beharrezko tresnak ematea, prozesuari buruzko informazio xehatuaren bidez; biktimaren sarbidea kudeatzea, erasotzailearekin edo erasotzailearen familiarekin nahi ez diren topaketak saihesteko babes-bitartekoak jarritz; eta itxaronaldia sozializatzea, edo sor daitezkeen ezustekoak konpontzea. (2019/10/02)

III. ARDATZA: BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEAK (7 JARDUERA)

Lehendakaritza (7)

91. Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen [urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa](#) emateko uztailaren 28ko 12/2016 Legea aldatzeko Legea onartu da. (2019/04/04)
92. [2019ko Kontingentzia Plana onartu eta aurkeztu da](#), Euskadira joan-etorrian iristen diren migratzaileei arreta humanitaria emateko. (2019/06/03)
93. [Uztartu programa](#) onartu eta aurkeztu da, erradikalizazio bortitza prebenitzeko gizarte- eta hezkuntza-programa, Eusko Jaurlaritzak eta EITBk bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren barruan. (2019/06/06)
94. Euskal Autonomia Erkidegoko tokiei, [kultu-zentzoei eta erlijio-aniztasunari buruzko lege-proiektua onartu da](#), gure gizartearen bizikidetzeta, aniztasuna eta erlijio-askatasunerako eskubidea babesteko. (2019/06/25)
95. Nazio Batuek proiektu pilotu bat jarriko dute abian Euskadin, [erlijioaren erradikalizazioa prebenitzeko](#). (2019/07/17)
96. Lehendakariak [Share Proposamena](#) aurkeztu du Vatikanon. (2019/08/28)
97. Migrazioarako [Euskal Itun Sozialaren aurkezpena](#): “Jaso nahi genukeena eskaini”. Euskadik diskurtso partekatua eta batasun-irudia finkatu ditu migrazio-erronkei positiboki erantzuteko eta demagogia populistari aurre egiteko. (2019/11/30)

IV. ARDATZA: AUTOGOBERNU GEHIAGO ETA HOBEA (3 JARDUKETA)

Lehendakaritza (1)

98. Gobernu Kontseiluak [Gernikako Estatutua defendatzeko akordio bat onartu du bere 40. urteurrenean](#), Estatutua ez betetzea sustatzen dutenen aurrean. (2019/02/26)

Gobernantza Publikoa eta Autogobernua (2)

99. Eusko Jaurlaritzaren eta EAeko lurralde historikoen arteko Transferentzien Bitariko Batzordeen 2019ko martxoaren 20ko Erabakiek onartzen dituzten dekretuak onartzen dira, errepideen arloko eginkizunak eta zerbitzuak [Arabako Lurralde Historikoari](#), [Bizkaiko Lurralde Historikoari](#) eta [Gipuzkoako Lurralde Historikoari](#) eskualdatzeko. (2019/04/01)
100. [AP-68 autobidearen kudeaketa bere gain hartzen da](#) Euskal Autonomia Erkidegotik igarotzen den zatian (2019/05/06). Bi transferentzia-batzorde misto egin dira [AP-68 autobidearen](#) Bilboko udalerriaren eta Euskadiko Burgosko mugaren arteko zatia Bizkaiko eta Arabako lurralde historikoetara pasatzeko. 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, foru-aldundiek beren gain hartzen dute AP-68ren titulartasuna. (2019/12/05)

4. HERRIAREN 15 HELBURUAK (15 KONPROMISO, 15 ERANTZUN)

Gobernu Programak herriaren 15 helburu ezartzen ditu, eta horien lorpen-mailak zehazten du XI. legegintzaldian Gobernuaren ekintzaren emaitza giltzarrien lorpen-maila.

4.1. Laburpena

Hau zen, 2019ko abenduan, 15 helburu horiei lotutako adierazleen egoera:

	HERRIAREN HELBURU	ADIERAZLEA	AZKEN DATUA	2020ko HELBURUA	JOERA
1	Langabezia % 10etik behera jaitea	BJA langabezia-tasa (Eustat) (2019)	9,3%	< 10%	●
2	20.000 gazte, lehen lan-esperientzia	Lehen lan-esperientzia duten gazteak	17.115 (2017-2018 datua) 10.283 adicionales (2019ko aurrerapena)	20.000	●
3	A) BPGd industrialaren % 25era iristea eta B) EBko biztanle bakoitzeko BPGdren % 125	Industrien balio erantsia/BPGd BPGd per capita (Eurostat)	24,3% 117,3%	25% 125%	● ●
4	I+Gko 100 proiektu estrategiko	Finantzatutako I+G proiektu estrate- gikoak HAZITEK programaren bitartez	102	100	●
5	Berotegi-efektuko gasak (BEG) % 20 mu- rriztea	BEG murrizketa 2005. urtearekin alde- ratuta	21,7%	20%	●
6	Defizit publikoaren Europako konpromisoa betetzea	Ogasun eta Ekonomia Saila (2018ko azken datua)	0,63% Superabita	0%	●
7	Lidergoa gardentasun-indizeetan	INCAU indizea (International Transparency Organization)	100%	100%	●
8	Bizi-itxaropena urtebetez handitzea	Bizi-itxaropena jaiotzean (Osasun Saila) (2018ko azken datua)	83,6	84,1	●
9	Eskola uztearen tasa % 8tik behera	Eskola uztearen tasa (Eurostat) (2019)	6,7%	< 8%	●
10	25 urtetik beherako euskaldunak, % 75	Biztanleriaren ehunekoa < 25 urte euskaldun (Eustat)	81,2%	75%	●
11	Pobrezia-tasa % 20 murriztea	Pobrezia-tasa (Eurostat) (2018ko azken datua)	12,1%	< 14,1 %	●
12	Seme-alabengatiko zuzeneko laguntzak handitzea, 2 urtetik 3 urtera (% 50) zabalduz bigarren seme-alabagatiko laguntzak	2 urtetik 3 urtera luzatzea 2. seme-alabagatiko laguntzak	Bigarren seme-ala- bagatiko laguntza, 3 urtera artekoa	2. semea-al- abagatiko laguntza 3 urtera arte	●
13	Euskadi genero-berdintasunean lehen lau herrialdeen artean kokatzea	Gender Equality Index (European Institut for Gender Equality -EIGE-)	9. postua	4. postua	●
14	ETAren behin betiko armagabetzea eta desegitea amaitzea	<ul style="list-style-type: none"> • 2017ko apirilaren 8a: ETAren behin betiko armagabetzea • 2018ko maiatzaren 3a. ETAren behin betiko desegitea 			●
15	Estatutu Politiko berria	<ul style="list-style-type: none"> • 2017ko urtarrila: autogobernari buruzko lantaldea eratu zen Eusko Legebiltzarrean. • 2018ko apirila. Alderdi politikoen agiriaren ekarpenen eta adituen agerraldien fasea amaituta • 2018ko iraila. Onartutako oinarriak. Jurista adituek egiteko fasean • 2019ko abendua. Estatutu berriari buruzko hiru testuak aurkeztu dituzte adituek Eusko Legebiltzarrean 			●

● Adierazlearen helburua beteta edo joera positiboa ● Lortu beharreko helburua

4.2. Herriaren 15 helburuen betetze-mailaren xehetasuna

Hau zen, 2019ko abenduaren 31n, 15 helburu horiei lotutako adierazleen egoera:



ENPLEGUAREKIKO konpromisoa

1. helburua: langabezia % 10etik behera jaitea

Konpromisoak:

“1.000 milioi euroko enplegu-plana:

- ETEei eta tokiko ekonomiari laguntzeko
- Ekintzailtza bultzatzeko
- Gazteen enplegua sustatzeko
- Enpleguari lotutako prestakuntza-programak areagotzeko
- Lan-kontratazioa sustatzeko
- Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak garatzeko
- Etxebizitza eta ekipamendu publikoen birgaitzea sustatzeko, enplegu-generazioan intentsiboa delako.
- Iraupen luzeko langabeentzako eta enplegu-maila handieneko kolektiboentzako programa espezifikotarako.”

Erantzuna Enpleguari

“Langabezia% 9,3an dago 2019ko hirugarren hiruhilekoan” (PRA-Eustat)

- 2017ko azaroaren 28an onartu zen **2020ko Enplegu Plan Estrategikoa**, 1.175 milioi eurokoa.
- Enplegu Planak **34.143** enplegu sortu ditu 2017-2018 aldian, jarduera-ardatz hauen bidez:

ENPLEGU-PLAN ESTRATEGIKOA. JARDUERA-ARDATZAK	INBERTSIOA		
	AURRE- KONTUA 2017-2020	GAUZATUA 2017-2018	AURRE- RAPENA 2019
1. ETEei eta tokiko ekonomiari laguntzea	63	32	25
2. Ekintzailtza bultzatzea	86	37	23
3. Gazteen enplegua sustatzea	99	62	24
4. Enplegurako prestakuntza	282	120	61
5. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak.	298	160	96
6. Enplegua sortzeko eraikuntza berritzeko programak	347	163	78
GUZTIRA	1.175	574	307

ENPLEGUAK	AURREI-KUSPENA 2017-2020	ENPLE-GUAK 2017-2018	AURRERAPENA 2019
Enpresa berriak sortzeak sortutako enplegu-kopurua.	12.000	7.617	3.249
Etxebizitza eta ekipamendu publikoak birgaitzeko laguntza publikoari lotutako enpleguen kopurua.	15.000	6.968	3.754
Kontrataziorako pizgarrien bidez sortutako enpleguen kopurua.	18.000	10.975	7.051
Lan-eskaintza publikoetan sartutako plazen kopurua (txanda librea).	13.000	8.583	6.482
AURRERAPENA EMAITZAK GUZTIRA	58.000	34.143	20.536

LANGABEZIAREN BILAKAERA							
	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Euskadi	15,1	16,1	15,3	13,4	11,2	10,3	9,3

Iturria: Eustat (PRA)

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA (*)							
	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019 (Azaroa)
Euskadi	875,2	887,2	907,9	925,3	943,9	962,1	979,9

* Abendua c/urtea. Iturria: Lanbide

Eremu Ahulentzako Talka-planaren esparruan, enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzak onartu dira, bereziki egoera ahulean dauden eremu eta udalerrii zuzenduta, 2019ko ohiko deialdia osatzeko (zenbatekoa: 22 milioi €).

Eusko Jaurlaritzak onartutako **“2016-2020 Enplegu Plan Estrategikoa”**-ren bidez, XI. Legegintzaldian, 2020ra arte, 13.500 lanpostu betetzeko enplegu publikoaren eskaintza deialdiak egiteko konpromisoa hartu zuen. Abenduan onartutako 2019ko eskaintza kontuan hartuta, Hezkuntzako, Osakidetzako, Segurtasuneko eta Administrazio Orokorreko plaza-kopurua 16.400 baino gehiagokoa da:

- 2016. urtea: 877 plaza onartuta.
- 2017. urtea: 4.580 plaza onartuta.
- 2018. urtea: 4.402 plaza onartuta.
- 2019. urtea: 6.592 plaza onartuta.

GAZTERIAREKIN konpromisoa

Helburua: 20.000 gaztek lehen lan-aukera izatea

Konpromisoak

- “Gazteak kontratatzeko pizgarriak. Lehen aukera programa.
- Hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzeko programa.
- Prestakuntza duala sustatzea.
- Emantzipazioa. Etxebizitzak alokatzeko programa berezia, alokabideren bitartez diruz lagundutako pisuak gazteen esku jarriz.
- Nazioarteko esperientzia praktikorako programak, ondoren kontratatzeko konpromisoarekin.
- Gazteak itzultzeko programa. Atzerrian dagoen gazteriarekin lotura izateko atari bat martxan jartzea.”

Erantzuna Gazteei

“17.115 gaztek izan dute lan-aukera bat 2017-2018an”

2017-2018 aldiko emaitzak: 2017-2018 Gazte Enplegurako Plana gauzatu den lehen bi urteetan, 17.115 gaztek aurkitu dute lehen lan-aukera.

- 2018-2021 aldirako Gazte Plana onartu da.
- Lanbide Heziketako V. Euskal Plana onartzea.
- 2019-2020 Unibertsitate Sistemaren Plana onartzea.
- Lanbide Heziketako prestakuntza duala erdi- edo goi-mailako mailan amaitzen duten gazteen % 96k lan-kontratu sinatzen dute prestakuntza amaitu eta hurrengo hiru hilabeteetan.
- Gaztelagun programa onartu eta abian jartzea, gazteen emantzipazioa bultzatzeko, etxebizitzaren alokairu-gastuen % 50era arteko laguntzekin.
- 2018ko ekainaren 6an, Unibertsitate – Enpresa 2022 Euskal Estrategia onartu zen.
- 30 eta 34 urte bitarteko euskal gazteen % 57,1ek unibertsitate-ikasketak edo goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak amaitu dituzte. Europako zifra handienetako bat da, non batez bestekoa % 40,7 baita.
- Gazteen langabezia-tasa (16-29 urte), 2014an% 29,5ekoa zena, 2018ko amaieran% 15,5ekoa da (% 15,4 emakumeentzat eta % 15,6 gizonentzat) (2019ko 3. hilekoan 17,1ekoa da).
- Kanpoko gazteriarekin lotzeko atari bat abian jartzea, Basque Global Network sarearen bidez.

- Guztira 5.500 ikaslek egin dute LH duala, batez beste 1.500 enpresatan, azken hiru urteetan: 2017-2018 eta 2018-2019.
- Unibertsitateko prestakuntza duala gehitu da graduen eta masterren 22 titulaziotan.

GAZTEEN ENPLEGU-PLANA		HELBURUA 2017-2020	EMAITZAK 2017/2018		AURRERA- PENA 2019		AURRE- IKUSPENA 2020
Lehen Aukera programa (Praktikak)		3.000	807		468		750
Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa		5.000	7.104		3.833		1.250
Gazteen ekintzailtzari laguntzea		3.500	1.897		960		875
Tokiko eta eskualdeko enplegu-plane- tan kontratatutako gazteak		2.500	1.922		1.034		625
Gazteak lan-eskaintza publikoetan		3.200	3.913		3.133		800
Prestakuntza - Enplegu Bekak	Global Training bekak	1.800	810	1.355	400	739	450
	Nazioartekotze-bekak (BEINT)		168		100		
	Bestelakoak		377		239		
Bestelakoak: txanda-kontratua/Gaz- teen itzulera/Sektore espezifikoak		1.000	117		116		250
Gazteen 1. lan-aukera, GUZTIRA		20.000	17.115		10.283		5.000

HAZKUNDEArikiko konpromisoa

3a helburua: BPGd industrialaren % 25era iristea

Konpromisoak:

- “4. industria-iraultzaren aldeko apustu irmoa.
- 500 milioi euro teknologia- eta industria-ikerketara bideratuko dira 2017-2020 aldian, laugarren industria-iraultzan aurrera egiteko.
- Industriari lotutako enpresa eta zerbitzu berriak garatzea.
- Euskal ETEen digitalizazioaren aldeko apustua areagotzea, Euskadiko Agenda Digitalaren estrategia indartuz, 1.500 enpresa berri modernizatu eta digitalizatzeko.
- Berrikuntza ez-teknologikoko estrategia sustatzea, 40 milioi euro produktuak eta merkatuak dibertsifikatzeko programetara, enpresetako langileen partaidetza handitzera eta kudeaketaren berrikuntzara bideratuz.
- Zibersegurtasun industrialeko zentro bat martxan jar dadin bultzatzea.
- Fabrikazio aurreratuko bi zentro publiko eta pribatu berri irekitzea.”

Erantzuna Hazkundeari

Industria euskal ekonomiaren % 24,3 da

- “Basque Industry 4 .0” **industriaren Plan Estrategikoa** onartzea (2017/07/18, 1 .225 milioi 2017-2020 aldirako).
- 2017an eta 2018an 370 milioi euro bideratu dira ikerketa teknologiko eta industrialeko programetara, eta 204 milioi 2019an.
- Ekintzailetzaren Erakunde arteko 2020 Plana onartzea. BIND 4.0 programa.
- Euskadi-Basque Country nazioartekotze-estrategia onartu da (2018/01/23). “Basque Trade & Investment” nazioartekotzeko Euskal Agentzia sortzea. SPRIren bulego komertzialak irekitzea Milanen, Londresen eta New Yorken.
- Euskal Agenda Digitalaren estrategia onartu da.
- Innobideak programa garatzea eta “Hazinnova” programa berria abian jartzea, ETEen berrikuntza ez-teknologikoa sustatzeko.
- Zibersegurtasuneko Euskal Zentroa martxan jartzea.
- Euskadiko Teknologia Parkeen Sarearen 2020 Plan Estrategikoa onartzea.
- Bizkaiko Parke Teknologikoa martxan jartzea ezker aldean.


- 4.800 ETEri eman zitzaizen laguntza 2017/2018an, kanpo-merkatuetara sartzeko, modernizazio eta berrikuntzarako proiektuetarako.
- CFAA Fabrikazio Aeronautiko Aurreratuko Zentro berriaren eta “wind box” CFA eolikoaren bigarren fasearen inaugurazioa.
- Berrikuntzaren Europako Institutuak (EIT) Euskadi aukeratzen du Fabrikaren Europako Partzuergoaren nodo aurreratu (EIT Manufacturing) eta elikaduraren nodo europar (EIT Food) gisa.
- Eremu Ahuletarako Talka-planaren esparruan, inbertsio produktiboa egiten duten enpresentzako laguntza-lerro bat onartzea (12 m €) Nerbioi itsasadarraren ezkeraldea eta Oartzualdea eta Euskal Autonomia Erkidegoko urteko batez bestekoaren % 20tik gorako langabezia-tasa duten beste udalerrri batzuk bultzatzeko.

ETEEI LAGUNTZEKO PROGRAMAK	ENPRESAK 2017/2018	AURRERAPENA 2019	AURREIKUSPENA 2020
Kanpoko merkatuetarako sarbidea	594	410	300
Modernizatzeko eta hedatzeko proiektuak	1.306	1.103	275
Berrikuntza-proiektuak	2.929	1.845	1.025
TOTAL	4.829	3.358	1.600

Emaita:

Industria BPGdren % 24,3an dago 2018an

Industria-sektorearen/BPGd
(BEG Industria-Eustaten datuak)



	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Euskadi	24,5	24,2	24,1	24,3	24,4	24,3	24,3

Iturria: Eustat. Kontu ekonomikoak

HAZKUNDEArikiko konpromisoa

3b helburua: biztanleko gure BPGd Europar Batasuneko % 125ean kokatzea

Konpromisoak:

“Ekonomia eta enplegua suspertzeko programa estrategiko bat, honako hauetan oinarritua:

- 5.000 milioi euroko aurrekontu publikoa, inbertsio publikoa, berrikuntza, industria-garapena eta gure enpresen nazioartekotzea laguntzeko (4i Estrategia).
- 2.400 milioi euro abal publikoetan, euskal enpresen ekoizpen-finantzaketaren beharrak laguntzeko.
- 250 milioi euro funts estrategiko publiko-pribatu batean, euskal enpresei laguntzeko.
- Sektore estrategikoen aukerak babestea: automozioa, aeronautika, energia, makina-erreminta, trenbide-garraioak, informazioaren teknologiak.
- Turismoa hazteko eta enplegua sortzeko aukera gisa garatzea.
- Azpiegitura ekonomiko eta sozialetan inbertitzeko proiektu estrategikoak.”

Erantzuna Hazkundeari

“Biztanleko BPGd Europako batez bestekoaren % 117,3koa da 2018an


- **“Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru Programa”** onartu zen 2017ko martxoaren 28an, eta guztira **8.800 milioi euro** bideratu ziren 2017-2020 aldirako. Honela banatuta: 1.175 milioi enplegurako, 5.225 milioi 4i estrategia laguntzeko (inbertsioa, industrializazioa eta nazioartekotzea) eta, gainera, 2.400 milioi abal publikoetan enpresak berraktibatze eta enpresa-proiektu estrategikoen finantzaketa errazteko.
- 2017tik 2019ra bitartean, 6.400 milioi euro baino gehiago bideratu dira Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren Esparru Programara, honako arlo hauetan: enplegua, inbertsioa, nazioartekotzea eta industrializazioa.
- 250 milioi euroko funts estrategiko publiko-pribatu bat abian jartzea, euskal enpresen garapenari laguntzeko.
- Sektore estrategikoak garatzen laguntzea, RIS 3 espezializazio adimenduneko strategiaren bidez.
- Turismoaren garapena. 2018an, lehen aldiz, 3.000.000 bisita baino gehiago izan dira Euskadira. 2019ko urtariletik abuztura 2,5 milioi bisitari izan dira, hau da, % 3,1eko igoera 2018ko aldi berarekin alderatuta (irekia iturria).
- 40 inbertsio-proiektu estrategiko azpiegitura ekonomiko eta sozialetan.

ENPLEGUAREN ETA SUSPERTZE EKO-NOMIKOAREN ALDEKO ESPARRU-P.	AURREIKUSPENA 2017-2020	GAUZATUA 2017	GAUZATUA 2018	AURREIKUSPENA 2019	METATUA 2017-2019
Enplegua	1.175	269	305	307	881
Inbertsioa	2.610	613	605	650	1.868
Berrikuntza	1.765	418	430	451	1.299
Nazioartekotzea	125	28	24	31	83
Industrializazioa	725	156	176	182	514
Abalak	2.400	600	600	600	1.800
GUZTIRA	8.800	2.084	2.140	2.221	6.445

Emaiza:

Eurostatek 2018an Europar Batasuneko biztanleko BPGdren % 117,3an kokatu du Euskadi

BPGd per capita / EBko batez bestekoa konparazioa-EB, 2018



Iturria: Eurostat (2019ko abendua), Euskadi 2018 datua izan ezik, Ogasun eta Ekonomia Sailak lantzen duena.

2019ko abenduan, aldateta metodologikoa burutu da adierazlea lortzeko prozesuan, eta haren denbora-oinarria 2010etik 2015era aldatu da. Horren ondorioz, Euskadiko datuak doitu egin dira, % 121etik % 117,3ra. Hala ere, termino absolutuetan, Euskadiko BPG per capitak goranzko joeran jarraitzen du, eta posizio berari eusten dio Europar Batasuneko herrialdeekin konparazio rankingean.

Konparazioa - EB, eurotan

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Euskadi	28.697	28.387	28.946	30.046	31.004	32.167	33.223
Espania	22.048	21.899	22.218	23.219	23.979	24.969	25.727
EB - 28	26.680	26.850	27.720	29.140	29.310	30.070	30.960

Iturria: Eurostat, salbu eta Euskadiko datua, INEren Kontabilitate Orokorriari dagokiona.

Konparazioa -UE, EAP

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Euskadi	31.215	30.910	32.225	33.985	34.475	35.550	36.305
Espania	23.980	23.850	24.730	26.260	26.660	27.600	28.110
EB-28	26.680	26.850	27.720	29.140	29.310	30.070	30.960

Iturria: Eurostat, salbu eta Euskadi 2018 datua, Ogasun eta Ekonomia Sailari dagokiona.

BERRIKUNTZArekiko konpromisoa

4. Helburua: 100 Ikerketa-proiektu estrategiko garatzea

Konpromisoak:

- “Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu publikoko 1.700 milioi euro I+G programetarako.
- I+G bideratutako aurrekontuaren % 5eko urteko hazkunde-konpromisoa.
- Espezializazio adimendunaren aldeko apustua egitea hiru arlo estrategikotan: fabrikazio aurreratua, energia, biozientziak-osasuna.
- Talentu ikertzailea prestatzearen, atxikitzearen eta aberriatzearen aldeko apustua, Euskadin karrera profesional ikertzailea bultzatuz.
- Aukera teknologiko eta ekonomikoko eremu berriak garatzea: ekosistemak – Hiri-habitata -Elikadura – Kultura- eta sormen-industriak.
- Enpresa berritzaileen proiektuetarako abal publikoekin abian jarritako berrikuntza-funts berria garatzea, 200 milioi eurokoa.”

Respuesta a la innovación

“102 ikerketa-proiektu estrategiko berri 2017 eta 2019 artean”

- RIS3 Euskadi espezializazio adimenduneko estrategia garatzea, **hiru lehentasun estrategiko** ezartzen dituena: Fabrikazio aurreratua, Energia eta Osasuna, eta **lau aukera-esparru**: elikadura, ekosistemak, hiri-habitata eta kultura- eta sormen-industriak.
- Gobernuak **% 5eko urteko** hazkunderako konpromisoa bere gain hartu du **I+Gko aurrekontuetan. Konpromiso hori 2017-2020 aldian I+G+Bra bideratutako 1.765 milioi eurokoa da guztira.**
- BRTA Euskal Partzuergo Teknologikoa sortzea, zentro teknologiko eta ikerkuntza kooperatiboko zentro guztiak biltzen dituena.
- Azpiegitura zientifiko berrien inaugurazioa: UPV/EHUko Micaela Portilla Ikerketa Zentroa (gizarte-zientziak); Achúcarro Ikerketa Zentroa (neurozientziak); eta BIO Araba (osasun-ikerketa)
- Akordioa Estatuko Gobernuarekin ESS Bilbao Europako Partzuergoan sartzeko neutroien espalazio-zentroa eraikitzeko.
- Gestampekin lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea, Euskadin automobilgintzarekin zerikusia duten I+G+b jarduerak lau urtez garatzeko.

- 2.400 ETEk dute dagoeneko Hazinnova izeneko zerbitzu berri bat, 2,5 milioi eurokoa, joan den martxotik SPRI Taldeak eta Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziak sustatua, eta berrikuntza- eta lehiakortasun-indizeak hobetuko dituzten 500 proiektu abian jartzeko balioko duena.
- Aukera zientifiko eta teknologikoko 4 arlo berri garatzea honako hauetan: ekosistemak, hiri-habitata, elikadura, eta kultura- eta sormen-industriak.

EMAITZAK	2017	2018	2019 AURREIKUSPENA
Bultzatutako ikerketa-proiektu estrategikoak	35	32	35

- “LAU- GUNE” Ingeniaritza, Zientzia eta Teknologiako unibertsitate-prestakuntzako lehen klusterra eratzea.
- Talentu ikertzailea sustatzearen eta erakartzearen aldeko apustua. Ikerbasqueren Plana, 2018-2021 aldian 120 ikertzaile berri kontratazeko, gaur egun dituen 143 ikertzaileekin batera.
- EHUko lan-eskaintza publiko berria: 161 irakasle eta ikertzaile plaza.
- Atlas superkonputazio zentroaren inaugurazioa Donosty International Physics Centerren.
- Basque Culinary Centerrek gastronomian espezializatutako munduko lehen zentro teknologikoa sortu zuen: BCC Innovation.
- Bikaintek programak (6.600.000 €ko dotazioarekin) I+G proiektuak garatzeko laguntzak ematen ditu, doktore-titulua duten ikertzaileak sartuz eta enpresetan doktorego industrialak eginez.

IRAUNKORTASUNAREKIKO konpromisoa

5. Helburua: berotegi-efektuko gasen isurketa % 20 murriztea

Konpromisoak:

- “Hirietan mugikortasun iraunkorra sustatzea. Mugikortasun elektrikoko plan estrategiko bat garatzea.
- 2020an energia berriztagarrien erabilera % 20ra iristea.
- Europako lehen bost herrialdeen artean kokatzea energia-eraginkortasunari dagokionez (energia-kontsumoa BPGdren arabera).
- Lurraldearen plangintza egokia eta orekatua garatzea. 2030erako lurralde-nazioaren gidalerro berriak onartzea.
- Eraikuntza jasangarria eta ia isurketarik ez duten eraikinak sustatzea.
- Ekonomia zirkularra eta hondakinen berrerabilpena sustatzea.
- Mugikortasun jasangarria bultzatzea, garraio publikoa sustatuz eta garraio publikoaren eta pribatuaren elektrifikatzea modu progresiboan indartuz.
- Bizikletentzako ibilbideen sarea handitzea.
- Hiri-hondakinen sorrera murriztea. Hiri-hondakinen % 80 birziklatzea eta balorizatzea.
- 3E2030 EAeko energia-estrategia berria.”

Erantzuna Iraunkortasunari


“% 21,7 murriztu da berotegi efektuko gasen isurketa”

- Euskadi eraginkortasun energetiko handiena duten Europako lehen bost herrialdeen artean dago.
- IV. Ingurumen Esparru Programa garatzea (2020).
- 2019ko otsailaren 21ean, Administrazio Publikoen energia iraunkortasunaren Legea onartu zen.
- Euskadiko Garraio Jasangarriaren 2030erako Gida Plana onartu da.
- Espainiako Gobernuarekin akordioa, Abiadura Handiko Trena EAeko hiru hiriburueta iristeko.
- Garoñako zentrala behin betiko ixtea.
- Ibilgailu elektrikoak azkar kargatzeko lehen puntuaren inaugurazioa Araban.
- Gasteizen Bus Elektriko Adimenduna instalatzeko hitzarmena sinatzea.
- Eguzki-energia fotovoltaikoaren EKIAN parkea martxan jartzea Arasurren.
- Garapen Jasangarriko Euskal Agenda aurkeztu da, Nazio Batuen Garapen Jasangarriaren Helburuekin bat etorritik.
- Airearen kutsadurarekiko esposizioan dagoen hiri-biztanleriaren indizeak behera egin du etengabe Euskadin azken urteotan (% 15,9), estatuko batez bestekoaren azpitik eta Europako batez bestekoaren oso azpitik (Espainia: % 20,7; EB:% 22,5).
- “N-zeb” emisio praktikoki nuluak dituzten eraikinen ekimen strategikoa abian jartzea RIS 3 Euskadi Estrategiaren Hiri Habitataren Pilotaje Taldearen barruan.

- Energiaren Euskal Erakundeak eta Iberdrolak Euskadin proiektu berriztagarriak bultzatzeko sozietate bat sortu dute.
- Renove Plan bat onartu da, lehentasunez honako helburu hauek lortzeko ekintzak sustatzeko: energia-kontsumoa arrazionalizatzea eta petrolioarekiko mendekotasuna murriztea salgaien garraioan eta pertsonen mugikortasunean, bai eta ibilgailu eraginkor eta alternatiboetan inbertitzeko laguntzak esleitzeko deialdia ere, 5 milioi euroko funtsekin.
- Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeko lege-proiektua onartu da.
- Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Lege Proiektua onartu da.
- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onartu dira.
- Gobernu Kontseiluak Euskadiko Hiri Agenda (Bultzatu 2050) jakinarazi du.

Eraitza:

2005. urteaz geroztik, berotegi-efektuko gasen isurketak % 21,7 murriztu ditu Euskadik, eta 2020ko EB helburua (% 20ko murrizketa) gainditu du.



	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Euskadi	86,2	81,1	82,1	75,5	75,3	76,8	74,2	78,3
Espainia	81,1	81,0	79,5	73,3	73,9	76,5	74,0	77,1
EB- 28	91,5	88,5	87,3	85,5	82,3	82,8	82,3	82,7

Iturria: Eurostat eta berotegi-efektuko gasen emisioen inbentarioa (Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila)

KUDEAKETA ARDURATSUArekiko konpromisoa

6. Helburua: defizit publikoaren konpromisoa betetzea

Konpromisoa:

- “Aurrekontu-orekaren helburua betetzea, 2020rako.”

Erantzuna

Kudeaketa arduratsuari


Zero defizitaren konpromisoa lortu da

- EAEko zor publikoa (Adm. Orokorra + Enpresa partaidetuak, 2010eko Sec-aren arabera) BPGdren % 14an dago 2018an, autonomia-erkidego guztietako txikiena, Madrilgo Erkidegoarekin batera.
- Iruzur fiskalaren aurkako baterako plana onartu da (2017ko maiatza).
- Fiskal erreformarako akordioa, sozietateen gaineko % 24ko eta % 20ko zerga ezartzen duena ETEentzat (2017ko abendua).
- Toki Politiken Euskal Kontseilua eratzen da, Euskadiko Udal Legean aurreikusia.
- 2017ko uztailean Ekonomia Ituna eguneratzeko eta 2017-2021 bosturtekorako kupoa ezartzeko akordioa.
- Bi zor-jaulkipen bonu jasangarrietan: 500 milio (2018) eta 600 milioi (2019).

Enaitza:

Euskadik defizitik gabe itxi ditu 2017. eta 2018. urteak, superabitarekin. Horrela, EBk 2020rako ezarritako zero defizitaren helburua betetzera aurreratzen da.


Zorraren bilakaera BPGdren arabera



	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
BPGren%	1,0	1,5	4,2	7,8	8,7	11,6	13,4	14,2	14,6	14,8	14,6	14,0

Iturria: Espainiako Bankua. Estatistika Buletina. Zorra, PDEren arabera (gehiegizko defizitaren protokoloa). Administrazio Orokorraren eta erakundeen zorra barne hartzen du, SEC 2010en arabera.

Defizitaren bilakaera



	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019 (URRIA)
BPGren %	-1,46	-1,24	-1,05	-0,73	-0,66	1,49	0,68	0,9
Milioi €	-943,0	-784,0	-685,0	-489,0	-462,0	1.080,0	531,0	673,0

Iturria: IGAE (Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailletza Nagusia). SEC 2010- oinarria 2016.

KUDEAKETA GARDENArekiko konpromisoa

7. Helburua: gardentasun-indizeetan lidergoari eustea

Konpromisoak:

- *“Gobernu programa betetzeari buruzko kontuak etengabe ematea, Irekia plataformaren bidez.*
- *Software librea progresiboki aplikatzea Jaurlaritzaren kudeaketa-programetan.*
- *Herritarrentzat eta enpresentzat interesgarriak diren “Open data” edukiak zabaltzea.*
- *Euskal administrazioko zuzendaritzako kide eta goi-kargu guztiei kode etikoa aplikatzea.”*


Erantzuna Kudeaketa gardenari

“Euskadi gardentasun-indizeen buru da”

- 2017ko abenduaren 12an “Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoa” onartzea.
- Eusko Jaurlaritzako kargudunek kode etikoaren betebeharrak betetzeari buruzko txostena bidali zaio Legebiltzarrari.
- Gardentasunaren, Herritarren Partaidetzaren eta Gobernu Onaren Legearen proiektua onartu da (2017/09/19ko G.K.)
- Legealdiko lehen hiru urteetan, Irekia gardentasun-plataforman 5.246 jarduera argitaratu ziren, 2017-2020 programan hartutako 175 konpromisoer lotuta.

Emaitza:

Herritarrek beren Gobernuan duten konfiantza indizearen buru diren herrialdeen taldean dago EAE, Luxenburgo, Danimarka, Herbehereak, Suedia eta Finlandiarekin batera.




Herrialdeko
gubernuan
konfiantza-
indizea
EB konparatiba,
2019

Iturria:
Euskadi: Euskal Soziometroa
(urte bakoitzeko maiatza).
Gainerakoa: Euro-barometroa
(urte bakoitzeko maiatza).

Emaita:

Euskadi nazioarteko gardentasun-rankingeko liderra da estatu mailan, eta puntuazioan 100/100era iristen den bakarra da.



	2010	2012	2014	2016
Euskadi	57,5	97,5	100,0	100,0
Espainiako batez bestekoa	71,5	79,9	88,6	94,0

8. Helburua: bizi-itxaropena urtebetez luzatzea

Konpromisoak:

- *“Biztanle bakoitzeko osasun-gastu publikoa Europako batez bestekoaren gainetik mantentzen dela bermatzea.*
- *Laguntza-zerbitzuak ez pribatizatzeko konpromisoa.*
- *Lehen mailako arretako 6 zentro berri irekitzea.*
- *Urdulizko Ospitalearen irekiera osatzea eta Eibarko Ospitalea irekitzea.*
- *Zahartze aktiborako estrategia garatzea.*
- *Gizarte- eta osasun-zerbitzuak pixkanaka integratzea.*
- *Lehen mailako arreta eta ospitaleko arreta integratua, erakunde sanitario integratuen bidez.*
- *Osasun-ikerketak, medikuntza pertsonalizatua eta telemedikuntza sustatzea.*
- *Zainketa aringarrien arreta unibertsalizatzea, bizitzaren amaieran dauden pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.*
- *Euskadiko Arreta Onkologikoko Plan Integrala garatzea.”*

Erantzuna Osasunari

“Batez besteko bizi-itxaropenean joera positiboa du”


- “Osasun Plan Estrategikoa 2020” gauzatzen ari da.
- Euskadiko biztanleko osasun-aurrekontu publikoa 2019an dago, 1.731 € biztanleko, Europako eta Estatuko batez bestekoen gainetik (1 .328 €).
- Lehen Mailako Arretako Zentro hauek jarri dira martxan: Kanpezu (Araba) (2017/07/14), Amurrio (Araba) (2017/09/01), Laudio (Araba) (birmoldaketa) (2017/12/26), Orozko (Bizkaia) (2018/11/28), Retuerto (Barakaldo/Bizkaia) (2019/02/25); Aieteko (Donostia/Gipuzkoa) obrak ere hasi dira, eta Zuia-Murgia eraikitzeke kontratua formalizatu da (2019/09/11).
- Eibarko ospitale berria inauguratu da (2018/10/22).
- Biocruces-Bizkaiaren inaugurazioa.
- Arabako Unibertsitate Ospitalea handitzeko eta Urdulizko Ospitaleko zerbitzu guztiak irekitzeko obrak.
- Euskadiko Plan Integral Onkologikoa onartzea, Onkologikoa integratuta.
- Itxarote Zerrendak hobetzeko Ekintza Plana, Estatuko baxuenen artean daudenak.
- Errezeta elektronikoaren elkarrengarritasuna.
- 2017-2020 aldirako ildo soziosanitario estrategikoak onartzea.
- Kolon eta ondesteko minbiziaren populazio-baheketak estalitako populazioaren ehunekoa arriskuko populazioaren % 72,3ra iristen da (% 74,6 gizonak eta % 70 emakumeak), eta Europako altuenetako bat da.
- Abian jarri da ama-esnearen Euskadiko Bankua.

- 2020ko osasun-berrikuntzako estrategia onartzea. Osasun-sisteman I+G jardueretan diharduten 2.700 pertsona baino gehiago. 650 ikerketa proiektu urtero, horietatik 45 nazioartekoak. 700 azterketa kliniko baino gehiago urtean. Urtean 1.000tik gora artikuluko zientifiko ospe handieneko nazioarteko aldizkarietan. Patente berrien 13 familia.
- Euskadin Lehen Mailako Arreta indartzeko plan bat jarri da abian, 7 ildo estrategiko eta 35 ekintza jasotzen dituena osasun-zentroak hobetzeko eta baliabide pertsonalak eta materialak areagotzeko.
- Familia Medikuntzako eta Erizaintzako 46 plaza sortzea erabaki da, lehen mailako arreta indartzeko.
- Osasun Sailak osasun-arloan nanoteknologiaren erabilera bultzatzeko proiektu baten merkaturatzea koordinatzen du.
- Suizidioaren eragina murrizteko lehen estrategia integrala onartzea, prebentzioaren, esku-hartze goiztiarren eta eragindako pertsonen eta familien arretaren bidez.
- Osasun Sailaren eta Osakidetzaren oinarrizko jarduera-ildoak Legebiltzarrean aurkeztea: pertsonak ardatz nagusi gisa, osasunaren prebentzioa eta sustapena, zahartzearen erronkei heltzea, kronikotasuna eta mendekotasuna, osasun-sistemaren iraunkortasuna eta modernizazioa, profesionalak eta ikerketa eta berrikuntza osasun-zientzietan.

Emaitza:

Bizi-itxaropena jaiotzean 83,6 urtekoa da Euskadin (86,3 urtekoa emakumeentzat eta 80,7koa gizonentzat), Europako Batasuneko eta munduko altuenetakoa.

Bizi-itxaropenaren bilakaera jaiotzean



	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Euskadi	82,7	83,1	83,3	83,0	83,5	83,5	83,6
Espainia	82,5	83,2	83,3	83,0	83,5	83,4	83,2
EB 28	80,3	80,5	80,9	80,6	81,0	80,9	

Iturria: Euskadi: Osasun Erregistro eta Informazio Zerbitzua// Espainia: INE// EB-28. Eurostat.

HEZKUNTZArekiko konpromisoa

9. Helburua: Eskola uztearen tasa % 8tik behera jaitea

Konpromisoak:

- “Beken programa indartzea (irakaskuntza, joan-etorria, egoitza, jantokia eta eskola-materiala).
- Irakasleei enplegu-egonkortasun eta -kalitate handiagoa eskaini LEPen bitartez. Premia bereziak dituzten ikasleentzako langileak eta baliabideak sustatzea.
- Ikasle guztien eskola-arrakasta sustatzea, egungo esku-hartze programa espezifikoak indartuz: Hamaika-Esku, Hezkidetzeta, Bidelaguna, Hezkuntza-errefortzua eta Curriculum-aniztasuna.
- Eleaniztasuna bultzatzea, euskara funtsezko ardatz izanik.
- Lanbide Heziketa bultzatzea prestakuntzarekin, berrikuntzarekin, ekintzailtzarekin eta nazioartekotzearekin lotutako proiektu berrietan.”

Erantzuna Hezkuntzari

“Eskola uztearen tasa % 6,7koa da, Europako batez bestekoa baino txikiagoa, eskuragarri dauden datu konparatiboen arabera”


- Beka-programak indartu dira. Urtean 55 milioi euro bideratzen dira unibertsitatez kanpoko beketara. 125 mila familiak baino gehiagok jasotzen dituzte.
- Euskadi da irakaskuntza publikoan diru gehien inbertitzen duen erkidegoa. Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza publikoan, ikasle bakoitzeko gastu publikoa 9 .054 €-koa da, Estatuko altuena eta Estatuko batez bestekoa (5 .607 €) baino % 40 handiagoa.
- 2 urteko haurren eskolatzea % 93,1ekoa da, Estatuko altuena (% 60,1) eta Europako altuenetakoa.
- Egonkortasun handiagoa eman zaie irakasleei LEPen urteko deialdiekin: 2017ko (740 plaza), 2018ko (1.511 plaza) eta 2019ko (1.867 plaza) LEPak onartu dira.
- 250 ikastetxe publikotan baino gehiagotan egiten dira egokitze-lanak.
- 2019-2023 aldirako Hezkuntza Azpiegituren Plan berria egin da. Hasierako aurrekontua 318 milioi eurokoa da, eta 250 jarduera jasotzen ditu, 7 ardatz estrategikorekin.
- “2017-2020 Prestakuntza Ekimen Globala” abian jartzea, ikasleen emaitzak hobetzeko.
- “Eskola-jazarpenaren aurkako ekimen integrala” (Bizikasi) abian jartzea.
- “Ikasle etorkinei arreta emateko 2. plana 2017-2020” onartzea.
- “Gaitasun handiko” ikasleentzat plana onartze
- Lanbide Heziketaren Lege berria onartu da.

- Lanbide Heziketako V. Euskal Plana onartu da.
- 2019-2022 aldirako IV. Unibertsitate Plana onartu da.

Emaiza:

Eskola-uztearen tasa % 6,7koa da, Estatuko baxuena (% 17,3ko batez bestekoa), Europako batez bestekoaren azpitik (eskuragarri dauden datu konparatiboen arabera), eta Europar Batasuneko 2020ko helburua (% 10etik beherakoa tasa) betez.

Eskola uztearen tasa
Konparatiboa-EB, 2018



	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Euskadi	12,4	9,9	9,4	9,7	7,9	7,0	6,9	6,7
Espainia	24,7	23,6	21,9	20,0	19,0	18,3	17,9	17,3
EB 28	12,7	11,9	11,2	11,0	10,7	10,6	10,6	(*)

(*) 2019 urteari dagokion datua ez dago eskuragarri. Iturria: Eurostat/MECD

EUSKARArekiko konpromisoa

10. Helburua: 25 urtetik beherako biztanleen % 75 euskaldunak edo elebidunak izatea lortzea.

Konpromisioak:

“Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020 garatzea, zutabe hauen gainean:

- *Euskara ardatz izango duen hezkuntza-sistema eleanitza bultzatzea, hizkuntza-aukeraren eta bi hizkuntza ofizialetan gaitasun egokia eskuratzearen printzipioak bermatuz.*
- *Helduen euskalduntzerako sistema egonkor eta iraunkorra finkatzea.*
- *Helduek euskara ikastea doan izatea B2 mailara arte, maila akademikoa gainditzearekin lotuta.*
- *Erakunde arteko eta lankidetzari publiko-pribatuko plan bat garatzea, aisialdiko, kiroleko eta kulturako euskarazko jardueren eskaintza iraunkorra orokortzeko, bereziki haurren eta gazteen esparruetan, eremu informaletan haien erabilera sustatzeko.*
- *Komunikabideetan, IKTetan eta esparru sozio-ekonomikoan euskararen erabilera sustatzea.*
- *Zerbitzu publikoetan arreta elebiduna bermatzea eta euskal herritarren hizkuntza-eskubideen erabilera eraginkorra sustatzea.*
- *Euskara hizkuntza funtzional nagusia den eremuak indartzea.*
- *Euskarari eta hizkuntza-bizikidetzari buruzko adostasun sozial eta politiko zabalena bultzatzea eta artikulatzea.”*

Erantzuna Euskarari

“25 urtetik beherako biztanleen % 81,2 euskalduna edo elebiduna da”

- Jaurlaritzak 2017ko abenduaren 19an onartu zuen 2017-2020 aldirako Euskararen Agenda Estrategikoa.
- “Euskararen Adierazle Sistema” onartzea, Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren eta hiru foru-aldundien adostasunarekin.
- Europako markora egokitu da euskararen ezagutza egiaztatzen duten tituluen multzoa.
- HABEren eta Lanbideren arteko akordioa, langabetuak euskaraz trebatzeko.
- Euskara ikasteko, sustatzeko eta normalizatzeko laguntzak.

- Ingurune digitalean eta, bereziki, Wikipedian euskararen presentzia sustatzeko laguntzak.
- Lan-inguruneetan euskararen erabilera sustatzeko programa (LanHitz).
- Jaurlaritzak euskara sustatzeko lankidetzarako 2017-2022 Esparru Akordioa sinatu du Iparraldeko Euskeraren Erakunde Publikoekin.
- 800 ikastetxek parte hartzen dute eskolako eta eskolaz kanpoko jarduerak indartzeko programan, euskarazko adierazpena eta beste gaitasun batzuk hobetzeko.
- Eusko Jaurlaritzak herritar guztien eskura jarri du 'Itzultzaile Automatiko Neuronal', herritarren erabilerarako exekutiboaren proiektu praktiko bat, adimen artifizialean oinarrituta.

Emaita:

**Azken inkesta soziolinguistikoak (2018-03-20)
agerian utzi du 2016an Euskadiko 25 urtetik beherako
biztanleen % 81,2 euskalduna dela.**

EUSKAL HIZTUNEN EHUNEKOA	2011	2017
25 urtetik beherako biztanleria	73,2	81,2
Biztanleria osoa	36,4	41

POBREZIAren aurkako konpromisoa

11. Helburua: Euskadiko pobrezia-tasa % 20 jaistea 2015 urtekoarekiko

Konpromisoak:

- “Egoera ahulean dauden pertsonen laguntza ematen jarraitzea, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE), Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren programek ematen duten elkartasun kolektiboaren bidez.
- Etxebizitzaren Legea aplikatzea, premia duten pertsona guztiek etxebizitza bat eskuratzeko aukera izan dezaten.
- Etorikinen harrera eta integrazioa.
- Gizarte-laguntzen jarraipena eta kontrola, iruzurrak saihesteko.
- Gizarte-babeseko politikak indartzea, biztanleko gizarte-babeseko gastua Europako batez bestekoaren gainetik jarritz.”

Erantzuna pobrezia

“2018an, pobrezia-arriskuaren tasa % 31 murriztu da, 2015ekoaren aldean. Pobrezia-tasa txikiena duten Europako 5 herrialdeen artean dago Euskadi”

- Gizarte-gastuaren aurrekontua (osasuna, hezkuntza eta gizarte-babesa) 7.000 milioi eurotik gorakoa da 2019an, EAEko aurrekontuaren % 66,9.
- Biztanleko gizarte-babeseko gastua Europako batez bestekoaren (% 105) gainetik dago erosahalmenaren parekotasunean (eskuragarri dauden azken datuen arabera, 8 .682 euro vs 8 .232 euro).
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) aldatzeko eta hobetzeko lege-proposamena aurkeztu da, pobrezia- eta gizarte-bazterketako egoera berrietara egokituta eta laguntzen jarraipen- eta kontrol-sistemak indartuta.
- Gizarte-larrialdietarako laguntzen araudi berria onartu da.
- Farmazia-koordainketaren salbuespena aplikatzen zaie DSBE jasotzen duten pertsonen edo 18 .000 eurotik beherako diru-sarrerak dituztenei.
- Gizarte Zerbitzuen 2020 Plan Estrategikoa gauzatzen.
- Etorikinei harrera egiteko eta integratzeko programak abian jartzea: herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta inmigrazioaren arloko V. ekintza-plana, share programa, babes komunitarioko programa, ikasle etorkinei laguntzeko hezkuntza-programak, Harrera programa, iragaitzako migratzaileentzako baliabide-sare berria.
- Etorikinei laguntzeko gizarte-erakundeentzako laguntzak.


- Laguntza-lerro bat onestea, Nerbioi itsasadarraren ezkeraldea eta Oiartzualdea eta Euskal Autonomia Erkidegoko urteko batez bestekoaren % 20tik gorako langabezia-tasa duten beste udalerrri batzuk bultzatzeko, lehiakortasuna eta garapen ekonomikoa hobetzeko inbertsio produktiboa egiten duten enpresentzat (12 m €).
- Enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzak onartu dira, bereziki egoera ahulean dauden eremu eta udalerriei zuzenduta, 2019ko ohiko deialdia osatzeko (zenbatekoa: 22 milioi €). Oarsoaldea Gipuzkoan, Meatzaldea (Enkarterri barne), eta Ezkeraldea Bizkaian. (Zenbatekoa: 10 m €).
- Lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu da Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin eta Euskadiko Udalen Elkartearekin (Eudel), familia-etxebizitza botatzean gerta daitezkeen kalteberatasun-kasuak hautemateari buruz, neurri sozialak hartu ahal izateko.

Emaitza:

2018ko pobrezia-arriskuaren tasa % 12,1ekoa da Euskadin, Europako batez bestekoa baino 9,6 puntu txikiagoa eta Estatukoa baino 14 puntu txikiagoa.

Pobrezia-arriskuaren tasa (Arope), EB, 2018

Konparazioa-EB, 2018



	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Euskadi	17,7	16,8	15,3	17,6	15,9	14,5	12,1
Espainia	27,2	27,3	29,2	28,6	27,9	26,6	26,1
EB 28	24,8	24,6	24,4	23,8	23,5	22,4	21,7

Iturria: INE eta Eurostat

FAMILIekiko konpromisoa

12. Helburua: seme-alabengatiko zuzeneko laguntzak % 50 handitzea, 2 urtetik 3 urtera zabalduz bigarren seme-alabagatiko diru-laguntzak.

Konpromisoak:

- “Bigarren semearen/alabaren jaiotzagatiko diru-laguntzak pixkanaka 2 urtetik 3 urtera zabaltzea.
- Jaiotzetarako laguntzak.

1. seme-alaba: 400 eta 900 € artean, lehenengo urtea bete arte

2. seme-alaba: 400 eta 900 € artean, hiru urte bete arte,

3. seme-alaba: 400 eta 900 € artean, 7 urte bete arte.

Laguntza horiek foru-aldundien zerga-desgrabazioen osagarriak izango dira.

- Lana eta familia bateragarri egiteko programa erantzunkideak. Amatasun- eta aitatasun-baimenak zabaltzea, pixkanaka parekatzeko bidean aurrera eginez.

Erantzuna Familiei

“Bigarren semeagatiko eta alabagatiko laguntzak 2 urtetik 3 urtera igo dira”

- Bigarren seme-alabaren jaiotzagatiko laguntza ekonomikoa 3 urte bete arte luzatu da (121/2018 Dekretua). Horren aplikazioa 57,6 milioi eurokoa da, hau da, aurreko egoerarekiko 32 milioi euroko gastu gehigarria.
- Seme-alabengatik familiei ematen zaizkien zuzeneko laguntzen aurrekontua handitu egin da: 2016an 27,5 milioi eurokoa zen, 2017an 31 milioi eurokoa eta 2018an 34,5 milioi eurokoa. Laguntza horiek foru-aldundien zerga-desgrabazioen osagarriak dira.
- Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko Dekretua onartu da.
- Familia bateragarri egiteko laguntzen zenbatekoa 31,9 milioi eurotik (2016an) 34,9 milioi eurora (2019an) handitu da.
- Familiei laguntzeko erakunde arteko IV. Plana 2018-2022 onartu da. Bertan, aitatasun- eta amatasun-baimenak jasotzen dira 16 astera arte, modu parekagarrian eta besterenezinean.
- Familiaren eta Haurren aldeko Euskal Ituna onartu da, foru-aldundiekin eta Eudelekin batera.

- Haurtzaroko eta nerabezaroko arrisku- eta desanparo-egoeren balorazioa arautzen duen dekretua.
- Izatezko Bikoteen Erregistroa arautzen duen Dekretua onartu da.

Eraitza:

“2016an, seme-alabak dituzten familientzako zuzeneko laguntzen aurrekontua 27,5 milioi eurokoa zen. Eta 2019an 34,5 milioi eurokoa da.”

	2016	2017	2018	2019RAKO AURREIKUSIA
Familia bateragarri egiteko laguntzak	31,9 M€	31,1 M€	33,4 M€	34,9M€
Jaiotzagatiko zuzeneko laguntzak	27,5 M€	31,0 M€	34,5 M€	34,5 M€

JAIOTZETARAKO LAGUNTZAK		
LAGUNTZA MOTA	URTEKOAK	ZENBATEKOA
Lehen semea/alaba	1	400-900 €artean
Bigarren semea/alaba	3	RE=<20.000: 900€
Hirugarren seme-alaba edo hurrengoak	7	RE>20.000<30.000: 500€ RE>30.000: 400€

BERDINTASUNArekiko konpromisoa

13. Helburua: Euskadi genero-berdintasunean aurreratuen dauden Europako herrialdeen artean kokatzea

Konpromisoak:

- *“Emakumeen sarbidea areagotzeko eta lan-baldintzak hobetzeko programak. Emakumeak irmoki sartzea Lanbide Heziketako prestakuntza dualeko programetan.*
- *Emakumeen eta gizonen soldaten arteko desberdintasuna murrizteko ituna.*
- *Lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko programak. Etxeko eta zaintzako jardueretan dagoen genero-aldea murriztea, erantzunkidetasuna sustatuz.*
- *Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko estrategia, prebentziorako neurriak eta erakunde arteko erantzun- eta arreta-protokoloak indartuz.”*

Erantzuna **Berdintasunari**

“Euskadi genero-berdintasunean aurreratuen dauden Europako 9 herrialdeen artean dago”

- 2018-2021eko VII. Berdintasun Plana 2018ko ekainaren 19an onartu da.
- Soldata-arrakalaren aurkako euskal estrategia onartu da (2018ko azaroa). Planak 60 jarduera-neurri zehatz aurreikusten ditu, 2019-2020 aldian 283 milioiko aurrekontuarekin.
- Kontziliazio erantzukiderako programak sustatzen dira, etxeko eta zaintzako jardueretan dagoen genero-aldea murrizteko.
- Gaur egungo berdintasun-legearen aldaketa izapidetzen ari da, indarkeria matxistaren aurkako kapitulu espezifiko bat erantsita, eta lan-berdintasuna helburu espezifikotzat hartuta.
- Euskadin, 2018an, emakumeen langabezia-tasa % 9,8koa da, eta %10,1koa gizonena (Espainian % 17 eta % 13,7, hurrenez hurren).
- 2018an, iraupen luzeko langabezia-tasa % 6,4koa da 2018an emakumeen kasuan, eta % 5,7koa gizonen kasuan.
- Lanaldi partzialaren borondaterik eza % 45,7koa da 2018an emakumeen kasuan, eta % 50,8koa gizonen kasuan.
- Batez besteko soldata Euskadin (2017ko datuak), 24.166 eurokoa da emakumeen kasuan eta 31.619 eurokoa gizonen kasuan.
- Jaiotzako bizi-itxaropena 86,3 urtekoa da emakumeen kasuan, eta 80,7koa gizonen kasuan.
- Eskola uztearen tasa % 4,5 da emakumeen kasuan eta % 9,4 gizonen kasuan.
- Hirugarren mailako ikasketak dituzten 30-34 urteko emakumeak guztizkoaren % 62,2 dira, eta gizonak, berriz, % 51,8.
- Euskal Administrazio Publikoan lan egiten duten pertsona guztiek 18 asteko guraso-baimena izango dute.


- Jaurlaritzak familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko Dekretua onartu du.
- Gobernuak ordainsari-berdintasunerako klausulak eta soldata-arrakalaren aurkako neurriak kontratazio publikoan sartzea onartu du.
- Gobernuak EAEko 2020rako Aurrekontu Orokorrak egiteko jarraibide ekonomikoak onartu ditu. Jarraibide horiek genero-ikuspegiaren, defizitaren eta gehienez ere % 13,2ko zorraren aldeko apustu irmoa jasotzen dute.
- Osasun-arloko profesionalentzako jarduera-gida bat egin da genero-indarkeria eta sexu-erasoak antzemateko. Gida horren helburua da osasun-arloko langileak inplikatzeko kasu horiek garaiz hautemateko, eta, era berean, esku hartzeko irizpide profesionalak eta baliabideak eskaintzea, arazo hori jasaten duten emakumeei arreta integratua eman ahal izateko.
- “Zurekin” proiektu pilotua jarri da abian, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako jarduketa judizialean laguntza integrala emateko.

Erantzuna:

Euskadi 9. postuan dago Genero Berdintasunaren Europako Indizean

Genero Berdintasunaren Indizea

Konparazioa-EB, 2018ra



	2010	2012	2015	2017
Euskadi	68,8	69,1	69,3	(*)
Espainia	66,4	67,4	68,3	70,1
EB 28	63,8	65,0	66,2	67,7

Iturria: Eustat eta EIGE (Genero Berdintasunerako Institutua)

(*) data honetan ez dago Euskadiri dagokion daturik (2017)

BAKEA eta BIZIKIDETZArekiko konpromisoa

14. Helburua: ETAREN behin betiko armagabetzea eta desegitea amaitzea. Bizikidetzan aurrera egitea

Konpromisoak:

“Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen plan bat garatzea, bakeari begira egiteke dagoen agenda amaitzeko eta elkartasunaren agendari heltzeko, honako ardatz hauen gainean:

- *Indarkeriaren amaiera ordenatua finkatzea, hiru zutabetan oinarrituta: ETAREN armagabetzea eta desagertzea, espetxe-politika berria eta iraganari buruzko hausnarketa kritikoa.*
- *Biktimei laguntzeko Batera Konpromisoa garatzea, biktimen eta gizartearen arteko bizikidetzari eta batasunari egiten dioten ekarpena sustatuz*
- *Legez kontrako errepresioaren biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko Legea garatzea*
- *Gogora Institutuaren bidez, memoriari buruzko argipena, elkarrizketa eta hausnarketa kritikoa sustatzea.*
- *Hitzeman programa garatzea, presoak gizarteratzeko eta birsozializatzeko politikak arautuko dituen helburu dekretu baten bidez, justizia leheneratzailearen Europako korranteekin bat etorritz.*
- *Giza eskubideen agenda berrirako integrazio-erantzunen programa bat antolatzea: migrazioak, errefuxiatuak, desberdintasun- eta bidegabekeria-modu desberdinen eta berrien arteko bizikidetzak.*
- *Giza eskubideekiko eta elkartasun-balioekiko konpromisoa indartuko duten hezkuntza-, dibulgazio-, herritarren eta gazteen partaidetza-ekimenak garatzea.*
- *Bizikidetzaren, giza eskubideen eta bakearekiko konpromisoaren aldeko nazioarteko lankidetzak akordioak formalizatzea.”*

Erantzuna **Bakearen eta bizikidetzaren alde**

“ETAREN desegitea 2018ko maiatzaren 3an amaitu da”

- **ETA 2018/05/03an desegitea eta Bertizen adierazpena, Iñigo Urkullu lehendakariaren eta Uxue Barkos Nafarroako lehendakariaren artean, Bakearen eta Bizikidetzaren alde.**
- **2017ko urriaren 10ean “bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana 2020” onartu zen, bakegintzan egiteke dagoen agendari amaiera emateko eta elkartasunaren eta bizikidetzaren agendari ekiteko.**

- Gogora Institutuaren 2017-2020 aldirako Jarduera Plana onartu da, indarkeriari eta memoria historikoari buruzko argitzea, elkarizketa eta barne-hausnarketa sustatzeko.
- Erlijioa aitzakiatzat hartzen duen nazioarteko terrorismoaren aurrean jarduteko plana. “Ados” Aholku Batzordea eratzea, Euskadiko komunitate islamikoekin lankidetzan aritzeko.
- ETako preso gehienek (% 73) bakarka bozkatzan dute gizarteratzeko legezko bideak erabiltzearen alde.
- Euskadi, Irlandarekin eta Erresuma Batuarekin batera, errefuxiatuen harreran aitzindari diren herrialdeen taldeko kide izango da, “Babes komunitarioaren” bidez.
- ETaren estortsioari eta enpresa-munduaren aurkako indarkeriari buruzko txostena argitaratzea
- Polizia-abusuen biktimei buruzko txostena aurkeztea
- “Pertur: gaiaren egoera eguneratua” txostenaren aurkezpen publikoa.
- “Tortura eta tratu txarrak Euskal Herrian 1960 eta 2014 artean” ikerketa-proiektuaren aurkezpena
- “Urruntze-politikak familietan duen eraginari” buruzko txostena aurkeztea
- Euskadiko memoria hurbilari buruzko “Herenegun!” Hezkuntza-programako materialak aurkeztea, Historia irakasgaiari.
- Uztartu programa aurkeztu da erradikalizazio biolentoaren prebentzioari buruzko nazioarteko mintegian.
- 5/2019 Legea onartzea, honako hau aldatzeko: 12/2016 Legea, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa

AUTOGOBERNUArekiko konpromisoa

15. Helburua: estatutu Politiko Berria onartzea

Konpromisoak:

- *“Printzipio demokratikoa eta legezotasun-printzipioa errespetatzea.*
- *Aniztasuna errespetatzea.*
- *Euskal Herriaren izaera eta nortasun nazionala aitortzea.*
- *Eskubide historikoak eta erabakitze eskubidearen aitortzea errespetatzea.*
- *Autogobernua eta eskumen-boterearen funtsa zabaltzea.*
- *Bermeen aldebiko sistema Espainiako Estatuarekin.*
- *Nafarroako Foru Komunitatearekiko eta Iparraldearekiko harremanen araubidea, bertako herritarren borondatearen arabera.*
- *Europar eta nazioartean harreman propioak ezartzeko gaitasuna.*
- *Euskara biziberritzea, hizkuntza-bizikidetzarako eta gizarte-kohesiorako tresna gisa.*
- *Ekonomia Ituna eguneratzea.*
- *Barne-akordioa eta Estatuarekin itun politikoa, Estatutu Politiko berria onartzeko.”*

Erantzuna Autogobernuari

**“2018ko uztailaren 6an, Legebiltzarreko
Autogobernuaren Lantaldean Estatutu Politiko Berria
egiteko oinarriak onartu ziren.**

**2018ko urriaren 26an, hura idazteaz arduratuko diren
legelarien batzordea eratu zen”**

Autogobernu aitortua

- Akordioa Estatuko Gobernuarekin Ekonomia Ituna, Kupoaren Bosturteko Legea (2017-2021) eta 2017-2020 aldirako defizit- eta zor-helburuak zabaltzeko. Kupoaren eta Kontzertu Ekonomikoaren Legeak onartzea.

- Ertzaintzari buruzko akordioa; plantilla 8.000 agentetan finkatzen da, Krimen Antolatuaren Inteligentzia Zentroan integratzen da, hirugarren herrialdeetan beroan jazartzeko gaitzen da eta terrorismoa jazartzeko Europako datu-baseetarako sarbidea errazten da.
- 2018ko abenduan, errepideen arloko (AP1 Armiñon-Burgos) eta trenbide-lineen arloko (Basurto-Ariz eta Irauregui-Luchano) bi transferentzia berriri buruzko dekretuak sinatu ziren.
- Espainiako Gobernuak, 2019ko urtarrilaren 22an, Gernikako Estatutuan jasotako transferentzien negoziazio-egutegi bat onartu eta Eusko Jaurlaritzari bidali zion. Egutegian egiteke dauden transferentzia guztiak sartzten dira, Eusko Jaurlaritzak eskatutako Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketa izan ezik.
- 2019ko apirilaren 16an, AP-68ren transferentzia sinatu zen Transferentzien Batzorde Mistoan.

Estatutu berria.

- 2017ko martxoaren 3an eratu zen Eusko Legebiltzarreko Autogobernuaren Lantaldea, Estatutu Politiko berri bat egiteko.
- Eusko Legebiltzarrera txosten bat bidaltzea, 1979an Estatutua onartu zenetik Espainiako Estatuak Euskadiri zor dizkion transferentziak 37 direla dioena.
- 2018ko urriaren 26an, EAJ/Bildu/Podemos/PP/PSEk izendatutako 5 juristen batzordea lehen aldiz bildu zen Eusko Legebiltzarrean, 2018ko uztailaren 6an bildutako autogobernu-ponentzian onartutako oinarriei buruzko proposamen juridiko bat 8 hilabetetan idazteko enkarguarekin. 2019ko abenduaren 2an, izendatutako legelariak hiru proposamen aurkeztu zituzten, eta ponentziak adituen agerraldia eskatu zuen urtarrilean organo horretan.

I. ERANSKINA

2019KO URTEKO
ARAUGINTZA
PLANAREN
DEKRETUAK

1. LEHENDAKARITZA

Onartutako Dekretuak (5)

- 12/2019 Dekretua, urtarrilaren 29koa, Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko beka arautzen dituena.
- 47/2019 Dekretua, martxoaren 26koa, Bazkide Estrategikoen Sareko kanpoko eskualdeekin lankidetzatzen teknikoan aritzeko proiektuei laguntzak ematea arautzen duena.
- 89/2019 Dekretua, ekainaren 18koa, «Euskadi Basque Country Laguna» erakunde-aitorpena eratzen eta arautzen dituena.
- 90/2019 Dekretua, ekainaren 18koa, ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak arautzen dituena.
- 92/2019 Dekretua, 2019ko ekainaren 25koa, zeinaren bidez dirulaguntzak arautzen baitira ikerketa-proiektuak aurkez daitezkeen bultzatzeko, Horizonte 2020 Europako Ikerketa Esparru Programaren bigarren fasean, Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sareko kide diren agenteak buru direla.

Izapidetzen ari diren dekretu-proiektuak (2)

- Motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko prozedura garatzen duen dekretu proiektua.
- Atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsonen laguntzeko, euskal etxeei emango zaizkien dirulaguntzak arautzeko dekretua aldatzeko den dekretu proiektua.

2. GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA

Onartutako Dekretuak (5)

- 51/2019 Dekretua, martxoaren 26koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko kargu publikoen lanpostuen katalogo eguneratua.
- 93/2019 Dekretua, ekainaren 25koa, udal-eskumenen klausula unibertsalaren ondoriozko jardueren, zerbitzuen edo prestazioen egikaritzea arautzeko dena.
- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- 115/2019 Dekretua, uztailaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duena.
- 194/2019 Dekretua, abenduaren 3koa, kargu publikodunen betebeharreri eta eskubideei buruzko dekretua aldatzekoa.

Izapidetzen ari diren dekretu-proiektuak (1)

- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko informazioaren eta komunikazioaren teknologien kudeaketa-eredua arautzen duena.

Izapidetzen hasi gabeko dekretu-proiektuak (2)

- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundearen Erregistroa arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioaren langileei buruzko araudia ezartzen duena.

3. EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK

Onartutako Dekretuak (6)

- 26/2019 Dekretua, otsailaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoan mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko eragiketarako Europako laguntza-neurria garatu eta aplikatzeari buruzkoa.
- 56/2019 Dekretua, apirilaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailea eratzten duen Dekretua bigarren aldiz aldatzen duena.
- 25/2019 Dekretua, otsailaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtapenari eta ziurtapenaren kontrol-prozedurari eta erregistroari buruzkoa.
- 24/2019 Dekretua, otsailaren 26koa, indarrak gabe lagatzeko ekainaren 6ko 104/2000 Dekretua, Zumalakarregiko igogailua eramateko ardura «Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos S.A.» sozietate publikoari eman ziona.
- 76/2019 Dekretua, maiatzaren 14koa, zeinaren bidez Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari agintzen eta adskribatzen baitzaio Basurtuko Ospitalea-Ariz eta Irauregi-Lutxana-Barakaldo trenbide-lineen kudeaketa eta administrazioa. Linea horiek Estatuko Administrazioak eskualdatu zizkion Euskal Autonomia Erkidegoari.
- 143/2019 Dekretua, irailaren 17koa, zeinaren bidez Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari agintzen eta adskribatzen baitzaio Basurtu-Ariz linearen –2. bide-zatia: Rekalde-Irala– lurperatzean integratutako trenbide-azpiegituren administrazioa. Linea hori Estatuko Administrazioak eskualdatu zion Euskal Autonomia Erkidegoari.

Izapidetzen ari diren dekretu-proiektuak (17)

- Dekretu-proiektua, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko dekretuaren bigarren aldaketa.
- Dekretu-proiektua, zeinaren bidez arautzen baitira ikertzaile eta teknologoei nekazaritza-, arrantza- eta elikadura-sektoreko zientzia-, teknologia- eta enpresa-ingurunean prestakuntza emateko laguntzak.
- Dekretu-proiektua, EAEn txakurrak edukitzeari buruzko 101/2004 Dekretua aldatzekoa.

- Dekretu-proiektua, nekazaritza sektoreko zerbitzuak eskaintzen dituzten aldi baterako langileentzako ostatuak sortzeko, egokitzeko edo hornitzeko laguntzak emateko dena.
- Dekretu-proiektua, energia produkitzeko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio baimenen prozedura arautzen duena.
- Ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuaren aldaketa, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko Agenteen berrantolatzeke eta eguneratzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Euskadiko Segurtasun Industrialari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza- eta arrantza-sektoreetako ikerketa, garapen eta berrikuntzarako laguntzei buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan urpeko jarduerak eta urpekaritzako lanbide-jarduera baimendu eta kontrolatzeko baldintzak ezartzen dituena.
- Dekretu-proiektua, itsas garraioa erregulatzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Kirol Portua zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren estatutuak onartzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan garatutako gidaridun ibilgailuak alokatzeko zerbitzuak eragiketa-neurriak erregulatzeko.
- Dekretu-proiektua, Itsas Garraioko Operadoreen Erregistroarena Dekretu-proiektua, Itsas garraioa erregulatzeko dena.
- Dekretu-proiektua, kanalizatutako gasaren zerbitzu publikoaren instalazioei baimena eman eta horiek jardunean jartzeari buruzko ekainaren 9ko 107/1998 Dekretua aldatzen duena.
- Dekretu-proiektua, gasa garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio baimenen prozedura arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Energiaren Jasangarritasun Legea garatzen duena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko itsasoko eta ur kontinentaletako turismo-arrantzari, arrantzako eta akuikulturako turismoari eta arrantza-erakustaldiei buruzkoa.

Izapidetzen hasi gabeko dekretu-proiektuak (3).

- Dekretu-proiektua, Industria Segurtasuneko eta Meategietako gaietan trebatzeko banakako karnetak, baimendutako enpresak eta aitortutako erakundeak arautzeko dena.
- Dekretu-proiektua, energiaren informazioa eta gardentasunari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Energia autokudeari buruzkoa.

4. ENPLEGUA ETA GIZARTE-POLITIKAK

Onartutako Dekretuak (4)

- 168/2019 Dekretua, urriaren 29koa, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta enplegu zentro berezien Euskal Erregistroa.
- 126/2019 Dekretua, uztailaren 30koa, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitzazentroi buruzkoa.
- 110/2019 Dekretua, uztailaren 16koa, arreta goiztiarraren arloko lanbide-kualifikazioa egiaztatzeko balio duten tituluena, ikasketen eta kompetentzia profesionalen katalogoari buruzkoa.
- 164/2019 Dekretua, urriaren 22koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa.

Izapidetzen ari diren dekretu-proiektuak (1)

- Gizarte itunari buruzko dekretu-proiektua.

Izapidetzen hasi gabeko dekretu-proiektuak (4)

- Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskolak eta Haur eta Gazteen Aisialdi Jardueretarako Begirale eta Zuzendariak Trebatzeko Ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko moduari buruzko, azaroaren 2ko 419/1994 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen dekretu-proiektua.
- Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeena eroldari buruzko, dekretu-proiektua.
- Telelaguntza-zerbitzu publikoari buruzko, ekainaren 28ko 144/2011 dekretua aldatzeko dekretu-proiektua.

5. INGURUMENA, LURRALDE-PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA

Onartutako Dekretuak (5)

- 64/2019 Dekretua, apirilaren 9koa, arku elektrikoko labeetako altzairugintzako zepa beltzak balorizatzeko jardueretarako araubide juridiko aplikagarriari buruzkoa.
- 83/2019 Dekretua, ekainaren 4koa, zeinaren bidez arautzen baitira Urdaibai Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioena bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak.
- 144/2019 Dekretua, irailaren 17koa, Merkatu libreko etxebizitzak alokatzeko ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) bitartekaritza-programa arautzeko dena.

- 209/2019 Dekretua, abenduaren 26koa, zeinaren bidez garatzen baita Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea.
- 210/2019 Dekretua, abenduaren 26koa, kreditu-erakundeen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzorua arloko finantza-lankidetzakoa, eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzekoa

Izapidetzen ari diren dekretu-proiektuak (3)

- Etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboari buruzko Dekretua.
- Jenderik gabeko etxebizitza arautzeko eta neurri batzuk ezartzeko den Dekretua horrelako etxebizitzak benetan okupatu eta bere funtzio soziala bete dezaten.
- Euskal autonomia erkidegoko sektore publikoko kartografia eta informazio geografikoa antolatzeko Dekretua.

6. OGASUNA ETA EKONOMIA

Onartutako Dekretuak (1)

- 15/2019 Dekretua, otsailaren 5koa, 2019ko ekitaldirako zorpetze-eragiketak egitea erabaki eta baimentzen duena.

Izapidetzen ari diren dekretu-proiektuak (2)

- Dekretu-proiektua, Euskadiko ondareari buruzko legearen testu bategina garatzeko.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Diru-bilketari buruzko Erregelamendua onartzen duena.

Izapidetzen hasi gabeko dekretu-proiektuak (2)

- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoak aseguru pribatuen bitartekaritza arloan dituen eskumenak arautzen dituena.
- Dekretu-proiektua, 2019ko Urteko Estatistika Programa erabakitzen duena.

7. HEZKUNTZA

Onartutako Dekretuak (8)

- 20/2019 Dekretua, otsailaren 12koa, zeinaren bidez onartzeko baita Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasle-kidegoetako –maisua-maistren kidegoetako izan ezik– lan-legepeko eta funtzionario diren irakasleentzat gordetako lanpostuen zerranda.(182/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan, Euskal Autonomia

Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasle-kidegoetako –maisu-maistren kidegoetako izan ezik– lan-legepeko eta funtzionario diren irakasleentzat gordetako lanpostuen zerrenda).

- 11/2019 Dekretua, urtarrilaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoan emango diren Oinarrizko Lanbide Heziketako 7 tituluri dagozkien curriculumak ezartzen dituena.
- 28/2019 Dekretua, otsailaren 26koa, zeinaren bidez aldatzen baita euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko den Dekretua.
- 80/2019 Dekretua, maiatzaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzen ezarpena xedatzen duena, irakaskuntza horietako oinarrizko A1 mailaren, oinarrizko A2 mailaren, tarteko B1 mailaren, tarteko B2 mailaren, C1 maila aurreratuaren eta C2 maila aurreratuaren curriculumarekin batera.
- 84/2019 Dekretua, ekainaren 11koa, zeinaren bidez arautzen baita hizkuntza normalizazioko Ulibarri Programa unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan.
- 166/2019 Dekretua, urriaren 22koa, Hezkuntza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen Dekretua eta HABEren arau organikoak onartzen dituen Dekretua aldatzen dituena.
- 118/2019 Dekretua, uztailaren 23koa, zeinaren bidez arautzen baitira bizitza osoan zehar egiten den ikaskuntzari buruzko jarduerak gauzatzeko dirulaguntzak.
- 186/2019 Dekretua, azaroaren 26koa, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleen eskola-garraioari –hezkuntzaren arloan eskumenak dituen sailak finantzatuak oari– buruzko dekretua.

Izapidetzen ari diren dekretu-proiektuak (9)

- Maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretua aldatzen duen dekretu-proiektua. 73/2012 dekretu hori, hain zuzen, atzerriko hizkuntzen titulu eta ziurtagiriei buruzkoa da, euskal autonomia erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikastetxe publiko eta pribatuetan irakasgaiak edo irakats-arloak atzerriko hizkuntzetan emateko hizkuntza-gaitasunaren betekizunak ezartzen dituena.
- Dekretu-proiektua, Lanbide Heziketari Aplikatutako Ikerketa eta Berrikuntzako Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroa (TKNIKA) sortzen eta zentroko lanpostuen zerrenda onartzen duen Dekretua aldatzen duena.
- Dekretu-proiektua, Talentuaren Euskal Institutua sortzen eta lanpostuen zerrenda onartzen duena.
- Dekretu-proiektua, Etorkizuneko Ikasketen Euskal Institutua sortzen eta lanpostuen zerrenda onartzen duena.
- Dekretu-proiektua, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen gehigarriko ordainsari osagarriari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Hezkuntza sailburuarena, Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikasketen antolaketa, berariazko curriculum eta haren ebaluazioa Euskal Autonomia Erkidegoan irakaskuntza horiek emateko baimendutako ikastetxeetan ezartzen duena.
- Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluaren dekretu-proiektua.

- Dekretu-proiektua, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakasle ez diren lan-kontratadun langileen lanpostuen zerrenda onartzen duen uztailaren 4ko 186/2017 Dekretua.
- Dekretu-proiektua, zeinaren bidez azaroaren 10eko 211/2015 Dekretuaren eranskina aldatzen duena, lan-esperientziaren bidez edo prestakuntzarako bide ez-formalen bidez eskuratutako lanbide-konpetentziak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura eta antolamendua ezartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan.

Izapidetzen hasi gabeko dekretu-proiektuak (11)

- Dekretu-proiektua, unibertsitatez kanpoko erregimen orokorreko zein erregimen bereziko irakaskuntza arautuak emateko ikastetxe pribatuak baimentzeko prozedura ezartzen duena (arte eta kirol irakaskuntzak).
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko arte-irakaskuntza ez arautuen zentroak sortzeko eta funtzionatzeko oinarritzko arauak ezartzen dituena.
- Dekretu-proiektua, unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lanpostuak betetzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomi Elkarteko Ingurugiroarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegien (Ingurugela) lanpostuen zerrenda onartzen duen otsailaren 13ko 28/2001 Dekretua aldatzen duena.
- Dekretu-proiektua, Hezkuntza sailburuarena, ospitaleko eta etxeko hezkuntza-arretarako eta arreta terapeutiko-hezigarrirako lurralde-zentroen lanpostuen zerrenda arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, Hezkuntza sailburuarena, Ikusteko desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza-inklusioko baliabide-zentroen lanpostuen zerrenda arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, Hezkuntza sailburuarena, hezkuntza inklusiboaren esparruan aniztasunari ematen zaion erantzuna arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, Lanbide Heziketako Koordinazio Organo Gorena sortzen duena.
- Dekretu-proiektua, Ikaskuntza Aurreratuen eta Digitalizatuen Lanbide Heziketako Zentro Integratua sortzen duena.
- Dekretu-proiektua, lanbide-heziketako eredu konbinatuan espezializatutako ikastetxeak sortzeko dena.
- Dekretu-proiektua, unibertsitatez kanpoko Irakas-sistema Ebalatu eta Ikertzeko Erakundearen (ISEI) sorkuntza arautzen duen Dekretua aldatzen duena.

8. OSASUNA

Onartutako Dekretuak (3)

- 29/2019 Dekretua, otsailaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko adineko pertsonentzako egoitzetako farmazia-zerbitzuei eta sendagai-biltegiei buruzkoa.
- 16/2019 Dekretua, otsailaren 5koa, zeinaren bidez bigarren aldiz aldatzen baita Euskadiko osasun-sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzen dituen Dekretua.
- 187/2019 Dekretua, azaroaren 26koa, edari alkoholduen, tabako-produktuen eta nikotina aska dezaketen gailuen seinaleztapenari buruzkoa.

Izapidetzen ari diren dekretu-proiektuak (5)

- Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legean aurreikusitako adikzioen arloko sariak eta aintzatespenak arautzen dituen dekretua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoaren Batzorde Etikoa sortzen duen dekretua aldatzea.
- Osasun-profesionalen Informazio-sistemari buruzko 153/2011 Dekretua aldatzea.
- Dekretua, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan profesionalak askatasunez hautatzekoari buruzkoa.
- 69/2011 dekretua aldatzea, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluarena.

Izapidetzen hasi gabeko dekretu-proiektuak (5)

- Osasun-profesionalen Informazio-sistemari buruzko 153/2011 Dekretua aldatzea. (Osasuneko sailburuaren 2019ko abenduaren 10eko Agindua, erizainek gizakientzako sendagaiak eta osasun-produktuak gomendatu, erabili eta baimentzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko prozedura onartzen duena).
- Osasun Sailak osasun-zerbitzuak ituntzeko oinarriak ezartzen dituen 77/1997 Dekretua aldatzea.
- Kontsumo publikokoak diren uren kalitatearen kontrol-, zaintza- eta informazio-sistema arautzen duen 178/2002 dekretua aldatzea.
- Osasun Sailari atxikitako Aholku Batzordeen araubideari buruzko 121/2005 dekretua aldatzea.
- Erabilera kolektiboko igerilekuen araudi sanitarioa onartzen duen 32/2003 Dekretua aldatzea.

9. TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA

Onartutako Dekretuak (3)

- 59/2019 Dekretua, apirilaren 2koa, Euskadiko Turismo Mahaia sortzen duen Dekretua aldatzen duena.
- 204/2019 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskadiko Kontsumoko Kontsulta Batzordearen osaera eta funtzionamenduari buruzkoa.
- 112/2019 Dekretua, uztailaren 16koa, Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroari buruzkoa.

Izapidetzen ari diren dekretu-proiektuak (2)

- Dekretu-proiektua, 2012ko maiatzaren 22ko 81/2012 Dekretua, bidaia-agentziei buruzkoa, bigarren aldatzeko dena.
- Dekretu-proiektua, turismo-gidari zerbitzua gaitzeko.

Izapidetzen hasi gabeko dekretu-proiektuak (2)

- Dekretu-proiektua, hotel-establezimenduei buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, landa-ingurunean turistei ostatu emateko establezimenduak arautzen dituen dekretua aldatzen duena.

10. KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA

Onartutako Dekretuak (2)

- 44/2019 Dekretua, martxoaren 20koa, zeinaren bidez aldatzen baita Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen Dekretua.
- 139/2019 Dekretua, irailaren 10ekoa, Euskadin lege-gordailuaren kudeaketa arautzen duena.

Izapidetzen ari diren dekretu-proiektuak (1)

- Euskararen Aholku Batzordeari buruzko urriaren 16ko 176/2007 Dekretua berritzeko Dekretua.

11. SEGURTASUNA

Onartutako Dekretuak (6)

- 17/2019 Dekretua, otsailaren 5koa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena. (Honako dekretu honek eraldatuta: 119/2019 Dekretua, uztailaren 23koa, zeinaren bidez aldatzen baita jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen Dekretua).
- 18/2019 Dekretua, otsailaren 5koa, Ertzaintzako funtzionarioen ordezkari sindikalen hauteskundeak, Ertzaintzako Kontseiluaren osaketa eta erakunde sindikalei dagozkien ordezkariak hautatzeko bidea arautzen dituen dekretua bigarren aldiz aldatzeko dena.
- 21/2019 Dekretua, otsailaren 12koa, zeinaren bidez bigarren bez aldatzen baita larrialdi-egoerei aurre egiteko jarduera, zentro edo establezimendu zehatz batzuei ezartzen zaizkien autobabeserako betebeharrak arautzen dituen Dekretua.
- 30/2019 Dekretua, otsailaren 26koa, zeinaren bidez aldatzen baitira herritarrek larrialdiei aurre egiteko euskal sisteman duten borondatezko parte-hartzeari buruzko Dekretua eta Eusko Jaurlaritzaren larrialdien eta babes zibilaren arloko sariei buruzko Dekretua.
- 60/2019 Dekretua, apirilaren 2koa, Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretua aldatzen duena.
- 100/2019 Dekretua, uztailaren 2koa, zeinaren bidez aldatzen baita Eusko Legebiltzarrerako hauteskundearen antolaketan esku hartuko duten norbanakoen haborokinak eta hauteskunde-administrazioarekin lotutako bestelako funtzionamendu-gastuak arautzen dituen Dekretua.

Izapidetzen ari diren dekretu-proiektuak (1)

- Dekretu-proiektua, Jokoaren Erregelamendu Orokorra zati batean aldatzen duena.

Izapidetzen hasi gabeko dekretu-proiektuak (1)

- Dekretu-proiektua, Euskadiko Poliziaren Datuak Prestatzeko Zentroari Buruzko Dekretua aldatzen duena.

12. LANA ETA JUSTIZIA

Onartutako Dekretuak (2)

- 3/2019 Dekretua, urtarrilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan Elkarrizketa Sozialaren Mahaia sortzekoa.
- 81/2019 Dekretua, maiatzaren 28koa, Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretua aldatzeko dena.

Izapidetzen ari diren dekretu-proiektuak (1)

- Dekretu-proiektua, 207/2008 Dekretua, abenduaren 9koa, Euskadiko Lan Autonomoko Elkarteen Erregistro Berezia eratu eta arautzen duena aldatzen duena.

Izapidetzen hasi gabeko dekretu-proiektuak (1)

- Dekretu-proiektua, EAEn prebentzio sistemako laneko medikuntzaren diziplina prebentiboari buruzko auditoria edo kanpo ebaluazioa egiteko prebentzioko zerbitzuek edo baimendutako erakunde espezializatuak bete beharreko jarduera sanitarioa arautzen duena.

Arau izaera duten beste dekretu batzuk, 2019ko PANetik kanpo onartuak

- 139/2019 Dekretua, irailaren 10ekoa, Euskadin lege-gordailua kudeatzeari buruzkoa.
- 144/2019 Dekretua, irailaren 17koa, merkatu libreko etxebizitzak alokatzeko ASAP (Alokairu segurua, Arrazoizko Prezioa) bitartekaritza-programa arautzen duena.
- 28/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-nazioari buruzko zuzentarauak behin betiko onartzen dituena.
- 127/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioko (Hobetuz) langileak subrogatzeari buruzkoa.
- 115/2019 Dekretua, uztailaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren eta Kontseiluaren Erregelamendua onartzen duena.
- 62/2019 Dekretua, apirilaren 9koa, animalien elikaduraren sektorearen erregistro eta kontrol ofizialari buruzkoa.
- 63/2019 Dekretua, apirilaren 9koa, komunitateko konpostaje-instalazio eta -jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituena.
- 200/2019 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoan estatu-mailako baimena (VTC-N) duten ibilgailuen errentamendu-zerbitzua

